

LANKIDETZA HITZARMENA URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ETA DONOSTIAKO UDALAREN ARTEKOA, MARTUTENEO AUZOAN, URUMEA IBAIAN AURREIKUSITAKO LAN HIDRAULIKOAK GARATU ETA EGITEKO.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA / UR AGENTZIA Y EL AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN A LOS EFECTOS DEL DESARROLLO Y LA EJECUCIÓN DE LAS OBRAS HIDRÁULICAS PREVISTAS EN EL RÍO URUMEA, EN EL BARRIO DE MARTUTENE.

Donostian, 2014ko ekainaren 9an

En Donostia / San Sebastián, a 9 de junio de 2014

BILDU DIRA

REUNIDOS

Batetik, Iñigo Ansola Kareaga jauna, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusi den aldetik eta Agentziaren Estatutuen 7.2.g) artikulua ematen dion ahalmena erabiliz.

De una parte, D. Iñigo Ansola Kareaga, en calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua (URA), y, en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g de los Estatutos de dicha Entidad.

Bestetik, Ricardo Burutaran Ferré jauna, Etxebizitzako eta Hirigintzako zinegotzi ordezkaria den aldetik Donostiako Udalaren ordezkari, 2014ko ekainaren 9an tokiko gobernu-batzarrak hartutako erabakiaren bidez.

De otra, D. Ricardo Burutaran Ferré. Actúa en su condición de Concejale Delegado de Vivienda y Urbanismo, en representación del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, en virtud de acuerdo adoptado por la Junta de Gobierno Local de 9 de junio de 2014.

Esku-hartzaileek **LANKIDETZA HITZARMEN** hau sinatzeko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta asmo horrekin honako hau

Ambas partes, reconociéndose plena capacidad legal y de obrar acuerdan formalizar el presente **CONVENIO DE COLABORACIÓN**, a cuyos efectos

ADIERAZI DUTE:

EXPONEN:

Lehenengoa.- Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 11. eta 33. idatz-zatien arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du ur aprobetxamenduen gainean, urok Euskal Autonomia Erkidegoan zehar soilik igarotzen badira, baita Estatuaren interes orokorreko zatik legez izendatu ez diren eta beste autonomia erkidego batzuei eragiten

Primero.- Que, conforme al artículo 10, párrafos 11 y 33, del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, corresponde a la Comunidad Autónoma, dentro de su territorio, la competencia exclusiva en aprovechamientos hidráulicos, cuando las aguas discurren íntegramente dentro del País Vasco, así como en obras públicas que no tengan la calificación legal de interés

ez dieten obra publikoen gainean ere.

Bigarrena.- Ekainaren 23ko 1/2006 Legearen bidez Uraren Euskal Agentzia sortu zen, ingurumen arloko eskumena duen sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa; beraren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan uraren arloko politika gauzatzea.

Hirugarrena.- Urumea ibaiak gainezka egiten duela-eta, Donostiako Udalean aldian aldian uholdeak izaten dira, horrek kalte handiak eraginez.

Laugarrena.- 2009ko martxoan Uraren Euskal Agentziak *"Donostiako Martutene auzoa Urumea ibaiaren uholdeetatik babesteko proiektua"* idatzi zuen.



Proiektu horrek hainbat aldaketa izan ditu, besteak beste, *"Urumea ibarrari dagokion Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren behin betiko onarpenaren etenaldia partzialki uzteko dokumentua"*n ingurune horretarako planteatutako hirigintza-proposamenetara egokitzeko.

Proiektua bi zati xehatutan izan da banatua, bi fase bereizitan egitea ahalbidetzeko.



Bosgarrena.- 2013ko maiatzean, Donostiako Udalak *"Martuteneko uholdeen aurkako drainatze-proiektua"* egin zuen. Proiektuan zenbait jarduketa jasotzen dira, Martuteneko Pilar auzotik eta Lorategi Hiritik euri-urak husteko beharrezkoak, Urumea ibaiaren ur-mailak ura husten uzten ez duenerako.

general del Estado o cuya realización no afecte a otras Comunidades Autónomas.

Segundo.- Que por Ley 1/2006, de 23 de junio, se creó la Agencia Vasca del Agua, como ente público de Derecho Privado adscrito al Departamento competente en materia de medio ambiente, cuyo objeto es llevar a cabo la política del agua en Euskadi.

Tercero.- Que, el municipio de Donostia / San Sebastián sufre periódicamente inundaciones por el desbordamiento del río Urumea, con los consiguientes e importantes daños que eso ocasiona.

Cuarto.- Que, en marzo de 2009 se redactó el *"Proyecto de defensa contra inundaciones del río Urumea a su paso por el barrio de Martutene en San Sebastián"* por la Agencia Vasca del Agua.

Ese Proyecto ha sido objeto de distintas modificaciones, entre otras razones para su adecuación a las propuestas urbanísticas planteadas para ese mismo entorno en el *"Documento de levantamiento parcial de la suspensión de la aprobación definitiva del Plan General de Ordenación Urbana de Donostia-San Sebastián en la vega del Urumea"*.

El proyecto, además, ha sido dividido en dos desglosados para permitir su ejecución en dos fases diferenciadas.

Quinto.- Que, en mayo de 2013 se redactó el *"Proyecto de drenaje anti-inundaciones de Martutene"* por el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, en el que se han recogido las actuaciones necesarias para poder evacuar las aguas pluviales en caso de que el nivel del río Urumea no lo permita, en los barrios del Pilar y de Ciudad Jardín de Martutene.

Drainatze-jarduketa horiek uholdeen kontrako babeserako lanen arlokoak dira, eta *"Donostiako Martutene auzoa Urumea ibaiaren uholdeetatik babesteko proiektuko 1. zati xehatua"* delakoaren barruan daude. Donostiako Udalak zati xehatu horretako tarteari dagozkion gainerako jarduketak egin behar ditu.

Beharrezkoak diren gainerako jarduketez gain, beste ekaitz-tanke bat egin behar da, Urumea ibaiaren ur-mailak Apostolutza Ikastetxearen inguruan euri-urak hustea galarazten duenerako (obra hidraulikoen 2. fasea). Donostiako Udalak egin behar ditu bai tankea, bai jarduketak.

Seigarrena.- Donostian indarrean dagoen Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak udal erabakiz behin betiko onarpena izan zuen 2010eko ekainaren 25ean.

Behin betiko onarpen hori bertan behera geratu zen Urumearen ibarrean, ibar horretatik -hain zuzen, Donostiako sarbidea dagoen tartetik- igarotzen diren aldiriko eta abiadura handiko trenbideen trazadura aldatzea aurreikusita dagoelako, trenbideak Urumeako autobiatik ahalik eta gertuen egon daitezzen.

Gerora, eta 2014ko maiatzaren 29ko Akordioaren bidez behar bezala egin eta izapidetu ondoren, Donostiako Udalbatzak behin betiko onartu du *"Urumea ibarrari dagokion Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren behin betiko onarpenaren etenaldia partzialki uzteko dokumentua"*.

Estas actuaciones de drenaje que están dentro del ámbito de las obras de defensa contra inundaciones, han sido incorporadas al *"Desglosado nº 1 del Proyecto de defensa contra inundaciones del río Urumea a su paso por el barrio de Martutene en San Sebastián"*, debiendo ejecutar el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián el resto de las actuaciones que afectan al tramo abarcado por este desglosado.

Asimismo resulta necesario ejecutar otro tanque de tormentas junto con el resto de actuaciones necesarias para evacuar las aguas pluviales en el caso de que el nivel del río Urumea no lo permita en la zona de Apostolado (Fase 2 de las obras hidráulicas). Dicho tanque y actuaciones han de ser ejecutadas por el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián.

Sexto.- Que el Plan General de Ordenación Urbana vigente en Donostia / San Sebastián fue aprobado definitivamente mediante resolución municipal de 25 de junio de 2010.

Dicha aprobación definitiva fue suspendida en la vega del Urumea debido a la previsión de modificación del trazado de las redes ferroviarias de cercanías y de alta velocidad a lo largo de la citada vega, en el tramo coincidente con su entrada en esta ciudad, con el fin de acercarlas, en lo posible, a la autovía del Urumea.

Posteriormente, y tras su preceptiva elaboración y tramitación, mediante Acuerdo de 29 de mayo de 2014, el Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián ha aprobado con carácter definitivo el *"Documento de levantamiento parcial de la suspensión de la aprobación definitiva del Plan General de Ordenación Urbana de San Sebastián en la vega del"*

Urumea".

Dokumentu horretan adierazitakoaren arabera, haren oinarritzko helburua Urumea ibarrari dagokion 2010eko Plan Nagusiaren behin betiko onarpenaren etenaldia partzialki uztea da, Urumea ibaiak Martuteneko auzoan eragiten dituen uholdeen aurkako babeserako proposamen hidraulikoak hiriko hirigintzan sartzeko.

Hori dela eta, hiri antolatzeko dokumentu horrek Uraren Euskal Agentziaren proiektuan zehaztutako jarduketak biltzen ditu, Martuteneko auzoan uholdeen arriskua txikitze aldera.

Zazpigarrena.- Martuteneko auzoan aurreikusitako obra hidraulikoek afektazio handiak izango dituzte, behin-behinekoak nahiz behin betikoak, Urumea ibaiaren aldameneko lur eta eraikinetan.

Hortaz, "Urumea ibarrari dagokion Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren behin betiko onarpenaren etenaldia partzialki uzteko dokumentua"n adierazitakoari jarraituz, obren behin betiko afektazioa jasango duten lurrek 42.866 m²-ko azalera dute, gutxi gorabehera. Gainera, behin betiko afektazio horiek honako hauetan izango dira: 41 etxebizitzatan -6.260 m² (sabai) inguruko eraikigarritasuna dute-, industriako eta hirugarren sektoreko ekonomia-jardueretara bideratutako zenbait pabiloi eta lokaletan -6.038 m²(s) inguru-, eta beste erabilera osagarri batzuetan -2.153 m²(s) inguru-.

Orobat, behin betiko afektazio horiez gain, obrak egiteko beharrezkoak diren behin-behineko afektazioak ere hartu behar dira kontuan.

De conformidad con lo indicado en el mismo, el objetivo básico de ese Documento es el de levantar parcialmente la suspensión de la aprobación definitiva del referido Plan General de 2010 en la vega del Urumea con el fin de dar el necesario encaje urbanístico a las propuestas hidráulicas de defensa contra las inundaciones del río Urumea en el barrio de Martutene.

Debido a ello, ese Documento de ordenación urbanística recoge las actuaciones definidas en el proyecto desarrollado por la Agencia Vasca del Agua con objeto de disminuir el riesgo por inundaciones en el barrio de Martutene.

Séptimo.- Que, las obras hidráulicas previstas en el barrio de Martutene tienen importantes afecciones definitivas y temporales en terrenos y edificaciones colindantes con el río Urumea.

Así, de conformidad con lo indicado en el "Documento de levantamiento parcial de la suspensión de la aprobación definitiva del Plan General de Ordenación Urbana de Donostia-San Sebastián en la vega del Urumea", los terrenos afectados definitivamente por esas obras tienen una superficie total aproximada de 42.866 m². Además, esas afecciones definitivas se extienden a unas 41 viviendas, -que cuentan con una edificabilidad aproximada de 6.260 m²(t)-, así como a pabellones y locales destinados a actividades económicas industriales y terciarias, -unos 6.038 m²(t)-, y a otros usos auxiliares, -unos 2.153 m²(t)-.

Asimismo, a las anteriores afecciones definitivas se han de añadir las afecciones temporales relacionadas con la ejecución de las obras necesarias.

Obrak egiteko, honako hau behar da, besteak beste: administrazioak lur eta eraikin horiek eskuratzea eta eraistea, eta eraitsi beharreko eraikinetan legez bizi diren pertsonen ostatu ematea edo lekualdatzea, bai eta eraikinetako jardueren eta negozioen ere.

Zortzigarrena.- Aipatutako proiektuko laugarren epigrafean adierazten diren helburuak lortuko badira, hitzarmen honetan parte hartzen duten administrazioek, besteak beste, batera jardun eta lankidetzan aritu behar dute.

Hori dela eta, uholdeetatik babesteko proiektuan eta Plan Nagusiaren behin betiko onarpenaren etenaldia uzteko dokumentuan ezarritako aurreikuspenak zuzen koordinatu beharko dira; hain zuzen ere, Urumea ibaiaren Martuteneko auzoko tartean egin beharreko obra hidraulikoak proiektatzearekin eta egitearekin lotutako aurreikuspenaz ari gara.

Horretarako, hitzarmen honetan parte hartzen duten herri-administrazioek egokitzat jo dute hitzarmena formulatzea eta izenpetzea, ondorengo klausulei jarraituz:

KLAUSULAK:

Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da zehaztea Uraren Euskal Agentziak eta Donostiako Udalak zer baldintzatan onartu duten, ondorengo klausulei jarraituz, elkar lanean aritzea *"Donostiako Martutene auzoa Urumea ibaiaren uholdeetatik babesteko proiektua"* delakoaren xehatuak garatzeko

Esa ejecución de las citadas obras requiere, entre otros extremos, la obtención por la Administración de los terrenos y edificaciones afectadas, y el derribo de las mismas, así como el realojo o traslado de los residentes legales de viviendas a derribar, y de las actividades o negocios que se encuentran implantados en las mismas.

Octavo.- Que la consecución de los objetivos planteados en el proyecto mencionado en el epígrafe Cuarto, así como su ejecución, requiere la actuación conjunta y en colaboración de, entre otras, las Administraciones que intervienen en este Convenio.

Ello justifica, entre otros extremos, la adecuada coordinación de las previsiones establecidas en, por un lado, el proyecto de defensa contra inundaciones, y, por otro, el Documento de levantamiento parcial de la suspensión, en lo referente, en concreto, a la proyección y ejecución de las obras hidráulicas a acometer en el río Urumea a su paso por el barrio de Martutene.

Para ello, las Administraciones públicas que intervienen en el presente Convenio han considerado conveniente su formulación y suscripción, de conformidad con las siguientes:

CLAÚSULAS:

Primera.- Objeto del Convenio.

Es objeto del presente Convenio determinar las condiciones en las que la Agencia Vasca del Agua (URA) y el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián se comprometen a colaborar en los trabajos de desarrollo y ejecución de los desglosados del *"Proyecto de defensa contra inundaciones del río*

eta egiteko lanetan.

Lankidetzaz hori hedatu egingo da; besteak beste, behin betiko aurreikuspenak era koordinatuan zehaztuko dira –bai proiektu hidraulikokoak, bai Urumea ibarrari dagokion Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren behin betiko onarpenaren etenaldia partzialki uzteko dokumentuak (2014ko maiatzean onartu zen behin betiko).

Bigarrenen.- Proposamen hidraulikoak eta hirigintzakoak zehaztea.

Martuteneko auzoan egin beharreko proposamen hidraulikoak eta hirigintza-proposamenak zehatz-mehatz eta behin betiko zehaztuko dira, behar bezala eta orokorki hausnartu eta koordinatu ondoren. Proposamen horiek egiteko, Urumea ibarreko ingurumen-baldintzak errespetatuko dira. Gainera, aintzat hartuko da ingurune horren erabilera publikoa eta, beraz, lehentasuna emango zaio herritar guztientzako garatu beharreko erabilera horri.

Hirugarrenen.- Egin beharreko lanak eta horien faseak.

Egin beharreko obra hidraulikoak "Donostiako Martutene auzoa Urumea ibaiaren uholdeetatik babesteko proiektua"ren zati xehatueta daude deskribatuta.

Proiektuaren zati xehatuak bi fasetan bereizten dute proiektua. Hona hemen:

*** 1. fasea**

Martutene Pasealekuaren eta Añarbeko hornidura-hodiaren arteko tarteari dagokio (6.253 eta 7.092 kilometro-puntu artean). Tarte horretan, ibilgu 50 metroko

Urumea a su paso por el barrio de Martutene en Donostia / San Sebastián".

Esa colaboración se extenderá, entre otros extremos, a la coordinada determinación de las previsiones definitivas tanto del Proyecto hidráulico como del Documento de levantamiento parcial de la suspensión de la aprobación definitiva del Plan General de Ordenación Urbana de Donostia / San Sebastián en la vega del Urumea, aprobado con carácter definitivo en mayo de 2014.

Segunda.- Determinación de las propuestas hidráulicas y urbanísticas.

Las propuestas hidráulicas y urbanísticas a plantear en el barrio de Martutene serán determinadas de manera precisa y definitiva a partir de la debida consideración y coordinación global de todas ellas. Las mismas, se elaborarán desde la perspectiva del máximo respeto de las condiciones medioambientales de la vega del Urumea, así como de la incorporación y priorización de dicho entorno para los usos públicos a desarrollar por toda la ciudadanía.

Tercera.- Obras a ejecutar y fases de ejecución de las mismas.

Las obras hidráulicas a ejecutar son las descritas en los desglosados del "Proyecto de defensa contra inundaciones del río Urumea a su paso por el barrio de Martutene en Donostia / San Sebastián".

Los desglosados del proyecto definen la ejecución del proyecto en dos fases:

*** Fase 1**

Se corresponde al tramo de aguas arriba, entre el puente del Paseo Martutene y el paso de la tubería de abastecimiento de Añarbe (pk 6.253 y pk 7.092). En este

zabalerara arte handitzeaz gain, Martuteneko zubia eta Pilarreko pasagunea ordeztu egingo dira, eta Añarbeko Mankomunitateko ur-hodia lurperatu egingo da.

Bestalde, Martuteneko auzoa ondo drainatuko dela bermatzeko, zenbait hodi biltzaile egingo dira, ura ekaitz-tanke batera eramango dutenak.

*** 2. fasea**

Fase horretan, 27. poligonoko zubiaren (5.760 kilometro-puntua) eta Martutene Pasealekuko zubiaren (6.253 kilometro-puntua) arteko jarduketak egingo dira. Tarte horretan ere, ibilgua handitu egingo da, 40-50 metroko zabalera izan dezan.

Fase hori egin aurretik, Apostolutza Ikastetxearen eremuko hiri-drainatzea bermatzeko beharrezkoak diren obrak idatzi eta egin behar dira (Portutxo A.U.).

Bi faseotan, dagozkion zerbitzuak berriz jarri eta hiri-egituraren egungo sarera egokituko dira.

Lehenengo Fasea egiteko aurreikusi den zenbatekoa hogeita lau milioi zazpiehun eta hogeita hamahiru mila zazpiehun eta hiru euro eta laurogeita sei zentimokoa da (24.733.703,86 €), BEZa barne.

Bigarren Fasea egiteko aurreikusi den zenbatekoa hamar milioi bederatziehun eta hirurogeita bederatzi mila berrehun eta hogeituro euro eta hamabost zentimokoa da (10.969.220,15 €), BEZa barne.

Laugarrena.- Uraren Euskal Agentziaren konpromisoak.

tramo, además de ampliar el cauce hasta alcanzar 50 metros de ancho, se sustituye el puente de Martutene, la pasarela del Pilar y se soterra la tubería de agua de la Mancomunidad de Añarbe.

Por otro lado, con el objeto de garantizar el correcto drenaje urbano del barrio de Martutene afectado por estas obras, se ejecutan una serie de colectores que almacenarán el agua en un tanque de tormentas.

*** Fase 2**

Esta fase abarca las actuaciones necesarias desde el puente del Polígono 27 en el pk 5.760 hasta el pk. 6.253, puente del Paseo de Martutene. En este tramo se prevé el ensanchamiento del cauce hasta alcanzar 45-50 metros.

Previamente a la ejecución de esta fase, será necesario redactar y ejecutar las obras necesarias para garantizar el drenaje urbano del ámbito de Apostolado (A.U. Portutxo).

Ambas fases incluyen la reposición de servicios afectados, así como la adecuación urbanística a la trama existente.

El importe previsto para la ejecución de la Fase 1 asciende a VEINTICUATRO MILLONES SETECIENTOS TREINTA Y TRES MIL SETECIENTOS TRES EUROS CON OCHENTA Y SEIS CÉNTIMOS (24.733.703,86 €), IVA incluido.

El importe previsto para la ejecución de la Fase 2 asciende a DIEZ MILLONES NOVECIENTOS SESENTA Y NUEVE MIL DOSCIENTOS VEINTE EUROS CON QUINCE CÉNTIMOS (10.969.220,15 €), IVA incluido.

Cuarta.- Compromisos de la Agencia Vasca del Agua.

Uraren Euskal Agentziak konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

a) "Donostiako Martutene auzoa Urumea ibaiaren uholdeetatik babesteko proiektua" delakoaren proiektu xehatuak egitea.

b) Delako proiektu horren zati xehatuak izapidetu eta behin betiko onestea.

c) Aipaturiko proiektu xehatu horietan jasotako lanak kontratatzea.

d) Aipaturiko lanak teknikoki zuzendu eta ikuskatzea.

e) Proiektuetan aurreikusitako obrak kontratazeko kostuak finantzatzea eta ordaintzea, bai eta lurzorua deskontaminazioarekin lotutako kostuak ere, drainatzeko jarduketan kostuak izan ezik.

Kapitulu horietan Agentziak 1. faserako gehienez ere jarriko duen aurreikusitako zenbatekoa hogeita bi milioi ehun eta hirurogeita hamar mila berrehun eta hamasei euro eta hirurogeita hiru zentimokoa da (22.170.216,63 €), BEZa barne.

2. faserako, berriz, Agentziak jarriko duen gehienezko zenbatekoa bederatzi milioi lauhun eta hirurogeita bederatzi mila berrehun eta hogeituro euro eta hamabost zentimokoa da (9.469.220,15 €), BEZa barne.

f) 1. faserako eraikin utziaraziak eraisteko lanen zenbatekoa ehun eta laurogei mila euroraino (180.000,00 €), BEZa barne, Donostiako Udalarik badagokio ere, diru

La Agencia Vasca del Agua se compromete a:

a) Aportar a su cargo los proyectos desglosados del "Proyecto de defensa contra inundaciones del río Urumea a su paso por el barrio de Martutene en Donostia / San Sebastián".

b) Tramitar y aprobar definitivamente los desglosados del citado proyecto.

c) Contratar las obras incluidas en los citados proyectos desglosados.

d) Dirigir e inspeccionar técnicamente las mencionadas obras.

e) Financiar y abonar los costes efectivos de la contratación de las obras incluidas en los proyectos, incluidos los que pudieran resultar vinculados a la descontaminación del suelo, a excepción de las actuaciones de drenaje urbano.

El importe previsto en esos capítulos como aportación máxima que compromete la Agencia Vasca del Agua, para la Fase 1, es de VEINTIDOS MILLONES OCHENTA Y TRES MIL QUINIENTOS CATORCE EUROS CON SETENTA Y UN CÉNTIMOS (22.170.216,63 €), IVA incluido.

Para la Fase 2, la aportación máxima que compromete la Agencia Vasca del Agua es de NUEVE MILLONES CUATROCIENTOS SESENTA Y NUEVE MIL DOSCIENTOS VEINTE EUROS CON QUINCE CÉNTIMOS (9.469.220,15 €), IVA incluido.

f) Asumir el coste que pudiera exceder de la cantidad de CIENTO OCHENTA MIL EUROS (180.000,00 €), IVA incluido, en concepto de derribo de las edificaciones desalojadas

kopuru horretatik gorakorik suertatuz gero,
Uraren Euskal Agentzia arduratzea.

**Bosgarrena.- Donostiako Udalaren
konpromisoak.**

Donostiako Udalak honako konpromiso
hauek hartzen ditu bere gain:

a) Proiektatutako obra hidraulikoen behin
betiko eta behin-behineko afektazioa
izango duten lurrak, eraikinak eta abar
lortzea. Horretarako, egokiak eta
beharrezkoak diren mekanismoak jarriko
dira martxan, eta behar diren espedienteak
irekiko dira.

b) Lur eta eraikin horiek erosteko gastu
guztiak ordaintzea, ingurunean
proposatutako hirigintza-garapeneri
urbanizazio-kargatzat hartzen badira ere.

c) Hustutako eraikinen eraispena
gauzatzea. Horretarako, 1. fasean, EHUN
ETA LAUROGEI MILA EURO (180.000,00 €)
ordainduko ditu gehienez, BEZa barne.

d) Obra hidraulikoek eragindako lur guztiak
URA Uraren Euskal Agentziaren eskura
jartzea, eraikinik gabe (aurreko idatzi-
zatian aipatutako gehienezko
zenbatekoan), agentziak obrak egin ditzan,
programaren arabera.

Konpromiso hori eraitsi beharreko
eraikinetan legez bizi diren pertsonen
ostatu emateko eta lekualdatzeko
beharretara luzatzen da, bai eta eraikin
horretako ekonomia-jarduerak
lekualdatzeko beharretara ere.

para la ejecución de la fase 1, a abonar
hasta dicha cuantía por el Ayuntamiento.

**Quinta.- Compromisos del
Ayuntamiento de Donostia / San
Sebastián.**

El Ayuntamiento de Donostia / San
Sebastián se compromete a:

a) Proceder a la obtención del conjunto de
los terrenos, edificaciones, etc., afectados
de forma tanto definitiva como temporal por
las obras hidráulicas proyectadas, mediante
la puesta en marcha e incoación, con ese
fin, de los mecanismos y expedientes que
resulten adecuados y necesarios.

b) Asumir la totalidad de los gastos
asociados a la adquisición de esos terrenos
y edificaciones sin perjuicio de su
consideración, en su caso, como carga de
urbanización de los desarrollos urbanísticos
planteados en el entorno.

c) Ejecución del derribo de las edificaciones
desalojadas, con una aportación máxima en
la fase 1 de CIENTO OCHENTA MIL EUROS
(180.000,00 €), IVA incluido.

d) Poner a disposición de la Agencia Vasca
del Agua (URA) la totalidad de esos terrenos
afectados por las obras hidráulicas, libres de
edificaciones (hasta el importe máximo
referido en el apartado anterior), con el fin
de que esa Agencia pueda acometer su
ejecución de conformidad con el programa
de ejecución de las mismas.

Este compromiso se entenderá extendido a
las obligaciones de realojo y traslado de los
residentes legales de las viviendas a
derribar, el cese y/o traslado de actividades
económicas que se vean afectadas, etc.

e) Martuteneko auzoan beharrezkoak diren drainatze-proiektuak idaztea, gauzatzea eta finantzatzea, auzo horretan euri-urek sortutako arazoak saihesteko. Euri-uren hodiak eta ekaitz-tankeak ere egingo ditu (elementu horiek proiektuko 1. fasearen zati xehatua daude), eta udalak 2. fasean Apostolutza Ikastetxearen (Portutxo) eremurako idazten duen proiektuko jarduketak ere bai.

Aurreko betebeharrak behar bezala egingo dira, hirugarren klausulan adierazitako faseetan proiektatutako obra hidraulikoak egin ahal izateko moduan.

Kapitulu honetan Donostiako Udalak 1. faserako gehienez ere jarriko duen aurreikusitako zenbatekoa BI MILIOI BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HIRU MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI EURO ETA HOGEITA HIRU ZENTIMOKOA da (2.563.487,23 €), BEZa barne.

2. faserako Donostiako Udalak jarriko duen zenbatekoa MILIOI BAT BOSTEHUN MILA EUROKOA (1.500.000,00 €) izatea aurrakusi da, BEZa barne.

Seigarrena.- Egin asmo diren lan hidraulikoak programatzeko irizpideak.

Egin nahi diren lan hidraulikoak, besteak beste, honako programazio-irizpideetara egokituko dira:

.- 2014 urtean hasiko dira lan hidraulikoak.

e) La redacción, ejecución y financiación de los proyectos de drenaje urbano necesarios en el barrio de Martutene para evitar los problemas generados por las aguas pluviales recogidas en el mismo. Se incluye la ejecución de las conducciones de aguas pluviales y del tanque de tormentas, incluidos en el proyecto desglosado de la Fase 1ª y las actuaciones que resulten del proyecto que sobre este particular redacte el Ayuntamiento para el ámbito de Apostolado (Portutxo) en la Fase 2ª.

El cumplimiento de las obligaciones anteriores se realizará en condiciones que permitan la ejecución de las obras hidráulicas proyectadas en las fases expuestas en la anterior Cláusula Tercera.

El importe previsto en este capítulo como aportación máxima que compromete Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, para la Fase 1, es de DOS MILLONES QUINIENTOS SESENTA Y TRES MIL CUATROCIENTOS OCHENTA Y SIETE EUROS CON VEINTITRES CÉNTIMOS (2.563.487,23 €), IVA incluido.

Para la Fase 2, la aportación prevista a asumir por el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián es de UN MILLÓN QUINIENTOS MIL EUROS (1.500.000,00 €), IVA incluido.

Sexta.- Criterios de programación de las obras hidráulicas proyectadas.

La ejecución de las obras hidráulicas proyectadas se adecuará, entre otros, a los siguientes criterios de programación:

.- Las obras hidráulicas se iniciarán dentro del año 2014.

.- Lanak egiteko programazioa Hirugarren Klausulan ezarritako faseetara egokituko da.

.- Aipaturiko fase bakoitzari dagozkion lanak egin aurretiaz, eskuratuta izango dira eragindako lursail eta ondasunak.

.- Behin lanak hasita, era jarraituan eta ezarritako faseen denboran etenik gabe egingo dira.

.- Nolanahi ere, lanen programazioa, betiere parte hartzen duten bi administrazioen aurrekontuaren egoerara egokituko da.

.- Ondorengo zazpigarren klausulan aipatzen den Jarraipen Batzordeak aurreko programazio-irizpide horiek doitu eta/edo osatu egingo ditu, egokitzat hartzen diren eta egokiak diren terminoetan.

Zazpigarrena.- Lanen eta egin asmo diren jarduketaren Jarraipen Batzordea.

1.- Jarraipen Batzorde bat eratuko da Hitzarmen honetan aurreikusitakoen garapen zein gauzatze prozesua jarraitzeko, bai eta lan hidraulikoena ere. Batzorde hori Uraren Euskal Agentziaren bi ordezkari eta Donostiako Udaleko beste bik osatuko dute. Eta, besteak beste, honako hauek izango ditu xede:

* Hitzarmen honetako helburuak bete daitezen bermatzeko neurri egokiak ezarri eta proposatu; egin asmo diren lan hidraulikoak egitea, alegia.

* Hitzarmen honetan ezarritako esku-hartzeak garatu edo/eta osatu, egokien irizpideetan.

.- La programación de su ejecución se adecuará a las fases expuestas en la anterior Cláusula Tercera.

.- La ejecución de las obras correspondientes a cada una de las citadas fases irá precedida, en todo caso, de la previa obtención de los terrenos y bienes afectados.

.- Una vez iniciadas esas obras, se procederá a su ejecución continuada e ininterrumpida en el tiempo de las distintas fases de obra.

.- Su programación se adecuará, en todo caso, a las disponibilidades presupuestarias de las Administraciones públicas afectadas.

.- La Comisión de Seguimiento a la que se hace referencia en la siguiente Cláusula Sexta procederá al ajuste y/o complementación de los anteriores criterios de programación en los términos y con el alcance que se estimen y resulten adecuados.

Septima.- Comisión de Seguimiento de las obras y actuaciones proyectadas.

1.- Se constituirá una Comisión de Seguimiento del proceso de desarrollo y ejecución tanto de las previsiones de este Convenio, como de las obras hidráulicas objeto del mismo. Estará conformada por dos representantes de la Agencia Vasca del Agua (URA) y otros dos del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián. Tendrá, entre otros, los siguientes fines:

* Determinar y proponer las medidas adecuadas para garantizar el cumplimiento de los objetivos del presente Convenio, y, en definitiva, la ejecución de las obras hidráulicas proyectadas.

* Desarrollar y/o complementar las medidas de intervención establecidas en este Convenio, en los términos y con el alcance que se estimen adecuados.

* Lan hidraulikoak egin bitartean fiskalizatu eta horiek egiteko ezarri diren programazio irizpideetara egokitu.

* Hitzarmen honen helburuak lortzea eta gauzatzea erraztu eta arindu.

* Hitzarmena interpretatzeko eta gauatzeko orduan sor daitezkeen arazoak ebazten saiatu.

2.- Hitzarmenaren indarraldian, aldeetariko edozeinek proposatuz gero, Jarraipen Batzordea bildu egingo da, jarduerak hala eskatuta. Bileretako mahaiburutza zein idazkaritza txandaka hartuko dira. Erabakiak kide guztiek aho batez hartuko dituzte bai Batzordea biltzeko, bai akordioetara heltzeko, horixe izanik beharrezko quoruma.

3.- Hitzarmenean Jarraipen Batzordeari buruz beren beregi aurreikusten ez diren kontuetan, kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da, *Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari* buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 2. tituluko II. kapituluaren arautua.

Zortzigarrena.- Hitzarmenaren araubidea eta interpretazioa.

1.- Hitzarmen hau administrazio-hitzarmena da, eta herri administrazioen arteko lankidetzaren hitzarmenetan aplikatzeko den antolamendu juridiko-administratiboetan ezarritako irizpideei egokিত interpretatu eta garatuko da.

* Fiskalizar el proceso de ejecución de las obras hidráulicas y su adecuación a los criterios de programación establecidos para las mismas.

* Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la consecución y materialización de los objetivos del presente Convenio.

* Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el Convenio.

2.- Durante la vigencia del Convenio y a propuesta de cualquiera de las partes presentes en ella, la Comisión de Seguimiento se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones, siendo rotatorias la presidencia y la secretaría de la misma. El quórum necesario tanto para la realización de reuniones de la Comisión como para la adopción de acuerdos será el de la unanimidad de sus miembros.

3.- En lo no previsto expresamente en el Convenio para la Comisión de Seguimiento, será de aplicación el régimen de los órganos colegiados regulados en el capítulo II del título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Octava.- Régimen del Convenio e interpretación del mismo.

1.- El presente Convenio es de naturaleza administrativa, y su interpretación y desarrollo se adecuarán a los criterios establecidos en el ordenamiento jurídico-administrativo de aplicación a los convenios de colaboración entre administraciones públicas.

2.- Hitzarmen honek edo hitzarmen honen betearazpenak sorraz ditzakeen interpretazio-arazoak hitzarmenaren Jarraibiderako Batzordeak ebatziko ditu, aurreko zazpigarren klausulako irizpideei jarraituz; eta, horrela ezin balira ebatzi, azaroaren 26ko 30/1992 Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 8.3 artikulua xedatutakoari jarraituko zaio.

Bederatzigarrena.- Hitzarmenaren ondorioak eta iraupena.

1.- Hitzarmenak ez ditu parte-hartzaileak behartuko nork bere eskumenei uko egin edo haiek aldatzera. Aldeek hitzarmenaren konpromisoen ondoriozko erantzukizunak soilik hartu dituzte beren gain.

2.- Hitzarmenak sinatzen denetik izango ditu ondorioak eta behartuko ditu aldeak, eta lanen azken ordainketa egin arte iraungo du.

Hamargarrena.- Hitzarmena iraungitzea.

1.- Hitzarmena iraungiko da aurreko klausulan ezarritako indarraldia igaro delako edo hitzarmena hautsi egin delako.

2.- Aldeetako batek onartutako konpromisorik betetzen ez badu, besteak eskubidea izango du zorrotz bete dezala edo hitzarmena hauts dadila eskatzeko. Hitzarmena hautsiz gero, aldeek erabakiko dute zer baldintzatan finantzatzeko eta ordainduko diren egiten ari diren jardunak, bai eta, hala badagokio, jardunen obra-onarpena nola egingo den ere.

2.- Los problemas de interpretación que pudiera plantear el Convenio o su ejecución serán resueltos por la Comisión de Seguimiento a la que se hace referencia en la anterior Cláusula Séptima, de conformidad con los criterios establecidos en la misma. Si no fuese posible su resolución de esa manera, se estará a lo dispuesto en el artículo 8.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Novena.- Efectos y vigencia del Convenio.

1.- El Convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

2.- El Convenio surtirá efecto y obligará a las partes intervinientes desde su firma y, durará hasta el pago de la liquidación de la contratación de las obras para su ejecución.


Decima.- Extinción del Convenio.

1.- El Convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior, o por resolución.

2.- El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, o para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución del Convenio. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para financiación y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución y en su caso, para la posterior entrega de las mismas.

Eta horren guztia ren ondorioz eta horrekin bat, aldeek goiburuan adierazitako lekuan eta egunean sinatu dute hitzarmena hiruna aletan.

RICARDO BURUTARAN FERRÉ
ETXEBIZITZAKO ETA HIRIGINTZAKO
ZINEGOTZIA ORDEZKARIA / EL
CONCEJAL DELEGADO DE VIVIENDA Y
URBANISMO DEL AYUNTAMIENTO DE
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN



Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por triplicado, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

IÑIGO ANSOLA KAREAGA
URAREN EUSKAL AGENTZIAREN
ZUZENDARI NAGUSIA/ DIRECTOR
GENERAL DE LA AGENCIA VASCA DEL
AGUA

